



Euskadiko Jarraipen Batzordea, PEPAC 2023-2027 programaren baitan

Batzordearen 8. bilkura (2025.02.05) – Idatzizko prozedura

AKTA

Jarraipen Batzordearen barne-erregelamenduaren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta Batzordeko lehendakariaren erabakiz, 2025eko otsailaren 5ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeko Jarraipen Batzordearen deialdi bat ireki zen, idatzizko prozeduraren modalitatean, Batzordeko kide guztiei bidalitako posta elektronikoaren bidez.

Bilkura honetan bi gai proposatu ziren irizpenerako:

- Aldaketa-proposamen bat. Zehazki, 7131 interbentzioaren fitxan (*Kalitate-programetan parte hartzea*) aldaketa puntuala egitea proposatzen zen, "DO Cava" delakoa kalitate-programa lagungarrien artean sartzeko, lagungarriak diren gainerako kalitate-programen baldintza berberetan eta 283 euro/ha-ko primarekin (gainerako mahastizaintzako jatorrizko izendapenei aplikatzen zaien prima bera).
- Euskadiko FEADER eragiketak hautatzeko irizpideei buruzko dokumentuaren bertsio berri bat (6.0 bertsioa). Zehazki, honako interbentzio hauetan hautaketa-irizpideak eguneratzea proposatzen zen:
 - 6842.2 - Nekazaritzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak
 - 6872 - Landa-ingurune oinarritzako zerbitzu eta inbertsioak
 - 6883 - Basogintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak
 - 7132 - Nekazaritzako produktuak kalitate-programen bidez sustatzea

Oharrak egiteko epea otsailaren 19an ezarri zen, egun hori barne.

Ezarritako epearen barruan, lehen puntuari dagokionez (7131 interbentzioaren aldaketa proposamena), ez zen kontrako alegaziorik jaso, eta, beraz, otsailaren 20an, Kudeaketa-Agintaritzak aldeko irizpena helarazi zien Batzordeko kideei, "jakinarazpen" kategoria-aldaketa bat zela argituz, eta, beraz, aldaketa hori indarrean sartuko zela PEPACeko Kudeaketa Agintaritzak Nazionalak jakinarazpena Europako Batzordeko zerbitzuei ofizialki jakinarazten zien egunean.

Hautaketa-irizpideen dokumentuari buruzko puntuari dagokionez, Jarraipen Batzordeko lau erakunde kideren oharrak jaso ziren, guztiak ere 6842.2 eta 6883 interbentzioetako hautaketa-irizpideei buruzkoak.

Jasotako alegazioak Eusko Jaurlaritzako Elikagai Politika eta Industriako Zuzendaritzarekin lankidetzan baloratu ondoren (organo hori arduratzen da bi interbentzioak kudeatzeaz eta kofinantzatzeaz), hautaketa-irizpideen dokumentuaren bertsio berri bat egin zen (6.1 bertsioa), ahal zen neurrian, jasotako proposamenak barneratuz. Otsailaren 25ean helarazi zitzaion Batzordeko kideei 6.1 bertsio horri buruzko aldeko irizpena, jasotako alegazio bakoitzaren inguruan egindako hausnarketa eta erabakiarekin batera, eta jakinarazi zitzaion une horretatik aurrera jartzen zela indarrean, beste bertsio bat onartu arte.



Euskadiko Jarraipen Batzordeko Idazkaritza, PEPAC 2023-2027 programaren baitan

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large, stylized 'I' followed by a series of loops and a final flourish.

Sinatuta. Inaxio Alguacil Barrenetxea

Gasteiz, 2025eko otsailak 27